

## PRENTSA OHARRA

### Azken asteak

#### *Jeff Koons: atzera begirakoa* erakusketa ikusteko

Bi aste baino ez dira geratzen *Jeff Koons: atzera begirakoa* erakusketa arrakastatsua ikusteko; irailaren 27an itxiko da eta orduan hasiko dira erakusketako ia ehun artelan dagozkien jabeengana —museo, arte-galeria eta mundu oso bildumatzailerak— itzultzen. 435.000 bisitari izan ditu erakusketak ekainean ireki zenetik. Oraindik ikusi gabe daukanak bi aste hauek izango ditu aukera ez galtzeko.

*Jeff Koons: atzera begirakoa* 2014ko udan izan zen New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en. Museo horretan artista bati inoiz egindako atzera begirako handiena izan zen, eraikin oso hartu baitzuen. 2014ko azaroan Parisko Centre Pompidou museoan izan zen, eta itxi zenerako, museoko historian bisitari gehien izandako erakusketa zen. 2015eko ekainaren 9an Guggenheim Bilbao Museoan ireki zen, Fundación BBVAren babesari esker.

Bilboko erakusketa Parisko eta New Yorkekoa baino zabalagoa da, artistak ia berrogei urteko ibilbidean egindako sail guztien adibideak baitaude bertan. Aurkezpena ere nabarmentzekoa da; artistak berak irekieran esan zuen: “Nire lanak Bilboko Guggenheim-en beste inon baino dotoreago daude”.

Museora bertaratzen direnek, gainera, *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia* erakusketaz gozatzeko aukera izango dute; zabalik egongo da azaroaren 1 arte.

Jeff Koons erakusketa itxi ondoren, urriaren 23an, Museoak *Alex Katz, hemen eta orain*, irekiko du Museoak. Azken 25 urteetan artistaren ibilbidean paisaiak izandako garapena aztertuko du 35 artelanen bidez; horietan Katzek gauzen itxura unean bertan hautematen eta sentitzen diren moduan jaso nahi ditu, hots, “oraina” jaso nahi du. Atlantako High Museum of Arte-k antolatu du erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan.

Bestalde, urriaren 30ean *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* irekiko da. Guggenheim Bilbao Museoaren eta Vitra Design Museum-en erakusketa bat da, eta bertan gaur egungo 120 artista eta diseinatzaileen lanak izango dira aditzera emateko Afrikako kontinentean diseinuak aldaketa bultzatzen duela politikaren, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta teknologiaren alorretan.

Bilbon, 2015eko irailaren 11n

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) webgunean daukazu eskuragarri (prentsa eremua).